# GORABIDE

Nº 281 Zk.
2019ko EKAINA
JUNIO DE 2019

DISCAPACIDAD INTELECTUAL | ADIMEN DESGAITASUNA
BIZKAIA


INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

**Prestación por cuidados en casa**
**Etxean zainketarako prestazioa**
pg. 4 or.




**Encuentro 'Mi voto cuenta' de Fevas**
**'Nire botoak balio du' topaketa**
pg. 5 or.



**Reconocimiento al voluntariado**
**Boluntarioentzako aitortzea**
pg. 6 or.

# Pertsona irisgarriagoak

## *Bizkaiko zortzi erakundetan BBKrekin garatu dugun proiektuaren lehen fasea bukatu da, eta iritziak oso positiboak izan dira*














# Personas más accesibles

## *El proyecto que hemos desarrollado con BBK en ocho entidades de Bizkaia finaliza su primera fase con opiniones muy favorables*

**Asamblea de Socias y Socios: martes 18 de junio, a las 18:30, en Azkuna Zentroa**

(detalles y orden del día, en el interior)

**Bazkideen Batzarra: ekainaren 18an, asteartea, 18:30etan Azkuna Zentroan**

(zehaztasunak eta eguneko egitaraua, barruan)


GORABIDE

OHIKO BATZAR NAGUSIETARAKO DEIA

Gorabideko Zuzendaritza Batzordeak BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO deia egiten du. Batzarra 2019ko ekainaren 18an, asteartea, 18:30etan izango da, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko bigarren solairuan dagoen Lantegia 2an, (Plaza Arriquibar 4, Bilbon; Iparraguirre, Fernández del Campo eta Rekalde Zumarkaletik ere sar daiteke), bigarren deialdian. Lehenengo deia ordubete lehenagorako egiten da honen bidez, baina seguru asko batzarra ezin izango da lehenengo deialdian egin.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko batzarrean onartutako akta irakurtzea, informatzeko.
2. Presidenteak berriak ematea:
   2.1. Elkartearen 2018ko ekintza plana eta Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertzea eta onartzea.
   2.2. 2018ko finantza egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
3. 2019 urterako Ekintza Plana onartzea.
   3.1. Presidentearen azalpena.
   3.2. 2019rako aurrekontua.
4. 2020 urterako kuotak eguneratzea.
5. Honako hauen jardunbidearen eta kudeaketaren informazioa ematea:
   5.1. Lantegi Batuak.
   5.2. Futubide (Gorabide Tutoretzarako Fundazioa).
6. Zuzendaritza-Batzordearen berriztatzea.
7. Galderak eta eskaerak.

Batzarra eta gero, galderen txandan leku izan ez duten galderez arduratzeko denbora izango da, edari bat partekatuz.

OSO GARRANTZITSUA: Gorabideko bazkide ez direnak ezin izango dira batzarrera sartu.

# Gure 'Pertsona Irisgarriak' programak erakunde parte hartzaileak liluratzen ditu

***Aldundia, Guggenheim eta Bilboko Itsas Museoak, BetiON, Bilbao Turismo, Kutxabank, Euskaltel eta Metro Bilbaoko ordezkariek parte-hartzea baloratu dute***

**BBKrekin lankidetzan garatutako Pertsona Irisgarriak programaren lehenengo fasean, parte hartzen ari diren zortzi erakundeetako ordezkariak bildu genituen, adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko jarduerak sustatzeko xedea duen ekimen honetan izandako esperientzia ebaluatzeko.**

IKUSI BIDEOA GURE YOUTUBEKO KANALEAN



Diana Cabezas (Gorabide), Iñigo Mijangos (BetiON), Birjiña Arzallus (Kutxabank), Susana Palomino (Metro Bilbao), Jon Ruigómez (Museo Marítimo de Bilbao), Esther Virto (Bilbao Turismo), Rogelio Díez (Museo Guggenheim Bilbao), Susana López de la Calle (Euskaltel) e Imanol Madariaga (Diputación Foral de Bizkaia). | EL VÍDEO, EN NUESTRO CANAL DE YOUTUBE

Susana Palominok (Metro Bilbao) oso ondo baloratu zuen programa hau jarrera irisgarrietan zentratzea. *"Ematen du, irisgarritasuna aipatzean, irisgarritasun fisikoaren inguruko egoerak soilik datozkigula burura"*, azaldu zuen. *"Pertsona irisgarriaren kontzeptua oso egokia da; izan ere, pertsonarengan jartzen du arreta, norberarengan, ez kanpoan"*, mintzatu zen Jon Ruigómez (Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa). Desgaitasuna duten pertsonek prestakuntzan daukaten protagonismoari dagokionez ere, ados agertu ziren. *"Ordezkaezina da"*, esan zuen Rogelio Díezek (Guggenheim Museoa). *"Gorabidetik etorri zen taldeko pertsonen eskuzabaltasun eta naturaltasunak ikusarazi zigun hori zela falta genuena, naturalak izatea"*, gaineratu zuen Esther Virtok (Bilbao Turismo).

> Pertsona Irisgarriak programan parte hartu duten zortzi erakundeak oso pozik agertu dira jasotako prestakuntzari dagokionez. Bereziki nabarmendu dute jende guztiarentzako onuragarria dela, eta eskertu egin dute hitzaldiak adimen desgaitasuna duten pertsonek eman izana.

### Kanpo eta barne onurak

Bestalde, Birjiña Arzallusek (Kutxabank) esan zuen edozein pertsonarentzako onuragarria dela pertsona irisgarri batekin topo egitea. *"Aurrean dugunak zein beharrizan dituen antzeman behar dugu. Desgaitasuna edozein izanda ere, edo desgaitasunik ez dagoen kasuetan, edo adinaren arabera…"*, defendatu zuen. Iñigo Mijangosek (BetiON) ideia hori zabaldu zuen barrura begira ere: *"Enpresako pertsonak eurak oso pozik egon dira prestakuntzarekin; asko eskertu dute. Ikuspegia zabaltzeko oso baliagarria izan dela esan dute. Prestakuntza oso argia eta hurbila eman diguzue"*, nabarmendu zuen. *"Gure kasuan, Gizarte Ekintza Saileko Plan Estrategikoak irisgarritasun unibertsala, inklusio osoa eta holako kontzeptu hartzen ditu barne, baina Aldundia oso handia da eta ekitaldi honetan prestakuntza orokor gisa sartzen saiatu gara, ez sail bakoitzeko espezifiko moduan"*, esan zuen Imanol Madariagak (Bizkaiko Foru Aldundia).

### Kualifikazio profesionala

*"Denok, nolabait, bezeroarentzako lan egiten dugu"*, esan zuen Susana López de la Callek (Euskaltel). *"Profesional bati kualifikazioa emateaz ari garenean, ez dugu soilik alde teknikoa kontuan izan behar; bere lana hobeto egiteko hainbat mailatako trebetasunak, gaitasunak eta eskumenak eman behar zaizkio"*, esan zuen. *"Onuradun handienak jendeari arreta ematen dioten pertsonak dira; izan ere, beldurra galtzen dute, eta horrek laneko estresa kentzen die. Eta, maila pertsonalean, hori oso pozgarria da"*, esan zuen Guggenheimeko ordezkariak.





# Nuestro programa Personas Accesibles cautiva a las entidades participantes

***Representantes de Diputación, museos Guggenheim y Marítimo de Bilbao, BetiON, Bilbao Turismo, Kutxabank, Euskaltel y Metro Bilbao, valoran su participación***

> Las ocho entidades de Bizkaia que han participado en nuestro programa Personas Accesibles están muy satisfechas con la formación. Destacan que es algo que beneficia a todo el mundo y agradecen que las charlas las den personas con discapacidad intelectual.

**Tras finalizar la primera fase del programa Personas Accesibles que hemos desarrollado en colaboración con BBK, reunimos en el Hotel Abando de Bilbao a representantes de las ocho entidades participantes, para que evalúen su experiencia en esta iniciativa que busca fomentar actitudes favorables hacia las personas con discapacidad intelectual.**

Susana Palomino, de Metro Bilbao, valoró que este programa se centre en las actitudes accesibles. *"Parece que cuando mencionas la palabra accesibilidad solo se nos vienen a la cabeza cuestiones de accesibilidad física"*, expuso. *"El concepto de persona accesible es un acierto total porque pone el foco en la persona, en ti mismo, no lo pone fuera"* coincidió Jon Ruigómez, del Museo Marítimo Ría de Bilbao. Y en lo que respecta al protagonismo de las personas con discapacidad en la formación, también hubo consenso. *"Es insustituible"*, aseguró Rogelio Díez, del Museo Guggenheim. *"La generosidad del equipo de Gorabide que vino, por ser tan naturales, nos permitió ver que precisamente lo que quizás nos faltaba era eso, ser naturales"*, añadió Esther Virto, de Bilbao Turismo.

### Beneficio externo e interno

Por su parte, Birjiña Arzallus, de Kutxabank, aludió al beneficio que tiene para cualquier persona encontrarse con alguien accesible. *"Hay que detectar qué necesidad tiene quien está delante. Pero independientemente de la discapacidad de la que estemos hablando o sin que tenga discapacidad o dependiendo de la edad..."*, defendió. E Iñigo Mijangos, de BetiON, trasladó esa idea también de puertas adentro: *"Las propias personas de la empresa han acabado muy satisfechas con una formación de este tipo y lo han agradecido mucho. Nos decían que les habían abierto mucho los ojos. Nos habéis dado una formación muy clara y muy cercana"*, destacó. *"En nuestro caso, el Plan Estratégico del Departamento de Acción Social incluye conceptos como accesibilidad universal, plena inclusión... pero la Diputación es muy grande, y este curso lo hemos intentado meter como de formación general, no específica del departamento"*, expuso Imanol Madariaga, de la Diputación Foral de Bizkaia.

### Cualificación profesional

*"Todos, de alguna manera, trabajamos por y para el cliente; esto tenemos que abrirlo al resto de áreas de nuestra casa"*, apuntó Susana López de la Calle, de Euskaltel. *"Cualificar a un profesional no sólo es hacerlo técnicamente, sino dotarle de habilidades, competencias, capacidades, que le permitan hacer su trabajo mejor"*, añadió. *"El primer beneficiario son las personas que atienden al público porque pierden miedo y se les quita mucho estrés en su trabajo. Y, a nivel personal, da mucha satisfacción"*, coincidió el representante del Guggenheim.

**información bbk SAIOA GORABIDE informazioa**

# Prestación económica por cuidados en el hogar

**La normativa de dependencia ha experimentado cambios que mejoran las condiciones de las personas cuidadoras y se concretan en:**

1. Las personas dependientes (grado I, II o III) que trabajan tanto en empleo protegido como en empleo ordinario y las que acuden a centro ocupacional o centro de día pueden percibir la prestación económica por cuidados en el entorno familiar. Siempre que convivan con la persona cuidadora habitual no profesional, que ésta sea pariente hasta tercer grado o tutora legal y que esté en condiciones adecuadas de salud y disponibilidad para atender a la persona dependiente. Además, deben estar empadronadas en el mismo domicilio. La cuantía de la prestación podrá sufrir reducciones en función de los ingresos de la persona dependiente y en función de si acude a un centro de día o centro ocupacional (reducción del 50%). Esta prestación es incompatible con recurso de residencia permanente o temporal (dejará de cobrarse únicamente en los periodos que la persona está en residencia). También, en algunos casos, podría ser incompatible con algunas horas o la totalidad del servicio de ayuda a domicilio, según la normativa de cada ayuntamiento.
2. La Administración General del Estado vuelve a abonar la cuota de cotización a la Seguridad Social de las personas cuidadoras no profesionales de personas dependientes, designadas como tales en el Programa Individual de Atención (PIA). Para suscribir este convenio especial, es necesario que la persona cuidadora no esté dada de alta en la Seguridad Social en ningún régimen a tiempo completo ni en el desempleo. Y que, si tiene más de 65 años, no sea titular de una pensión de jubilación, incapacidad permanente y/o viudedad. La Seguridad Social está comunicando que tramita automáticamente un nuevo alta de los convenios especiales de aquellas personas que ya lo tenían suscrito con anterioridad al 1 de abril de 2019.

# Etxeko zainketengatiko prestazio ekonomikoa

**Mendekotasun arloko araudian aldaketa batzuk egon dira eta zaintzaileen baldintzak hobetu egin dira. Gai hauek zehaztu dira:**

1. Enplegu babestuan zein enplegu arruntean lan egiten duten mendekotasuna duten pertsonek (I, II edo III graduak) eta zentro okupazionalera edo eguneko zentrora doazenek, familia eremuko zainketengatiko prestazio ekonomikoa jaso dezakete. Ohiko zaintzaile ez profesionalarekin bizi direnean, hori hirugarren gradura arteko senidea edo legezko tutorea bada eta osasun egoera onean badago, mendekotasuna duen pertsona zaintzeko moduan. Gainera, etxebizitza berean erroldatuta egon behar dute. Prestazioaren zenbatekoa murriztu egin daiteke mendekotasuna duen pertsonaren diru-sarreren arabera, eta eguneko zentrora edota zentro okupazionalera doan kontuan izanda (% 50eko murrizketa). Prestazio hori ez da bateragarria aldi baterako edo behin betiko egoitza baliabideekin (egoitzan dagoen aldietan soilik utziko zaio kobratzeari). Kasu batzuetan, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ordu batzuekin edo guztiekin bateraezina izan daiteke, udal bakoitzaren araudiaren arabera.
2. Estatuko Administrazio Nagusiak mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile ez profesionalen Gizarte Segurantzarako kotizazio-kuota ordainduko du berriz ere. Hitzarmen berezi hori zaintzaile ez profesional moduan izendatuta dauden pertsonei zuzenduta dago, Banakako Arreta Programaren barruan, betiere. Hori sinatzeko, zaintzailea ez da Gizarte Segurantza erregimen batean ere alta emanda egon behar lanaldi osoan, ezta langabezian ere. Eta 65 urtetik gorako pertsona bada, ezin da erretiro-pentsio, ezgaitasun iraunkor edota alarguntasun pentsio baten titularra izan. Gizarte Segurantzak jakinarazi du hitzarmen berezien alta berri bat automatikoki izapidetuko dela, 2019ko apirilaren 1a baino lehen sinatuta zuten pertsonentzat.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# ‘Mi voto cuenta’ de Fevas amplifica la voz de las personas con discapacidad intelectual

***Más de 300 personas usuarias y familiares de nuestro movimiento asociativo abordaron necesidades y reivindicaciones con representantes de los principales partidos políticos***

Con el objetivo puesto en las elecciones forales del 26 de mayo, las cinco entidades vizcainas de Fevas Plena Inclusión Euskadi preparamos un encuentro entre personas con discapacidad intelectual, familias y representantes de los partidos políticos que tienen presencia en las Juntas Generales de Bizkaia, para abordar las necesidades y reivindicaciones de nuestro colectivo. Las personas usuarias aludieron a temas como accesibilidad cognitiva y lectura fácil, empleo, salud, vivienda, educación, transporte, justicia, ocio o cultura, con un mensaje muy claro: *“queremos que nos escuchen y nos faciliten la participación, para que podamos decidir el futuro”*. Las familias plantearon cuestiones como el sobresfuerzo económico que sufren, las listas de espera en servicios sociales o el acceso al empleo público y ordinario para personas con discapacidad intelectual. Y cada partido aportó sus diferentes propuestas, entre las que destacan poner a las personas en el centro, la igualdad de derechos, el fomento de la participación en la política y en las instituciones, la búsqueda de la plena ciudadanía, una Bizkaia inclusiva en la que todas las personas tengan una vida digna o la colaboración con las asociaciones.



Participaron personas usuarias de Gorabide, Futubide, Apnabi, Gaude y Aspace.

Para Fevas, esta iniciativa supone *“un hito importante que no debería quedar en algo anecdótico”*, en palabras del presidente Hugo Baroja.

# Fevaseko topaketa batek adimen desgaitasuna duten pertsonen ahotsa anplifikatzen du

***Gure elkarteen mugimenduko 300 erabiltzaile eta senide inguruk honen inguruko aldarrikapen eta beharrizanei buruz hitz egin zuten, alderdi politiko nagusietako ordezkariekin***

Maiatzaren 26ko hauteskundeetara begira, Fevas Plena Inclusión Euskadiren barruko Bizkaiko bost erakundeok topaketa bat prestatu genuen. Bertan, adimen desgaitasuna duten pertsonak, senideak eta Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkaritza duten alderdi politiko nagusietako ordezkariak elkartu ziren, gure kolektiboaren aldarrikapen eta beharrizanak aztertzeko asmoz. Erabiltzaileek hainbat gai hartu zituzten hizpide, hala nola irisgarritasun kognitiboa eta irakurketa erraza, enplegua, osasuna, hezkuntza, garraioa, justizia, aisialdia, kultura… Mezua oso argi izan zen: *“Hitz egiteko eta parte hartzeko eskubidea eskatzen dugu, guk ere etorkizunaren inguruan erabaki ahal izateko”*. Familiek hainbat gairen inguruan egin zituzten planteamenduak: egin behar duten ahalegin ekonomiko handia, gizarte zerbitzuetako itxaron-zerrendak edota enplegua lortzeko aukerak, betiere, kontuan izanda adimen desgaitasuna duten pertsonez ari garela. Alderdi politiko bakoitzak bere proposamenak egin zituen: pertsonak oinarritzat hartzea, eskubide berdintasuna, politikan eta erakundeetan partehartzeko aukerak bideratzea, herritartasun izaera osoa aitortzea, eta Bizkaia inklusibo bihurtzea, elkarteen arteko lankidetzan, pertsona guztiok bizimodu duina izateko. Ekimen hau, Fevasek presidentea den Hugo Barojak esan zuen moduan,*“gertakari garrantzitsua da, eta ez luke zergatik anekdotikoa izan”*.




# Reconocimiento al voluntariado

## *Nuestro Servicio de Tiempo Libre organizó una fiesta para reconocer y agradecer la valiosa colaboración de nuestras personas voluntarias*

La labor del voluntariado es fundamental para la misión de nuestra asociación. Por eso, nuestro Servicio de Tiempo Libre organizó una fiesta, a la que acudieron unas 120 personas voluntarias de nuestra asociación, para *"reconocer y agradecer su inestimable contribución a mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias"*, como expuso Maite Fernández, directora del servicio. *"Y vosotras lo hacéis posible cada mañana, cada tarde, cada sábado, cada domingo, cada salida de fin de semana, en cada actividad deportiva o cultural, cada verano..."*, enumeró.

La fiesta estuvo muy animada, con un fotomatón muy divertido, reencuentros entre personas que hacía tiempo que no se veían, la actuación del grupo Even Mud y música hasta que el cuerpo aguantó. Y, aunque la fiesta era de agradecimiento para todo el #voluntariadoGorabide, se hizo un pequeño homenaje a las personas más veteranas: Conchi Basabe, Cristian Puita, Naiara Marín, Itziar Castro, Valentín Macho, Mª Luz Cabrero y Eneritz Arcos recibieron un detalle en reconocimiento a su trayectoria.

# Boluntarioen lana aitortzea

## *Gure Astialdi Zerbitzuak jai bat antolatu zuen, gure boluntarioen lankidetzari balioa eman eta eskerrak emateko*

Boluntarioen lana funtsezkoa da astialdi programak garatzeko. Hori dela eta, gure Astialdi Zerbitzuak jai bat antolatu zuen gure elkarteko boluntarioen lana aitortzeko, eta 120 boluntario inguru bertarako ziren ekitaldira. Izan ere, zerbitzuko zuzendaria den Maite Fernándezek esan zuen moduan, *"adimen desgaitasuna duten pertsonen eta beren senideen bizi-kalitatea hobetzeko berebiziko ekarpena egiten dute. Zuei esker da posible, goizero, arratsaldero, larunbatero, igandero, asteburu irteera bakoitzean, kirol edo kultur jarduera bakoitzean, udaro…"*, esan zuen.

Giro polita izan zen jaian; fotomatoia, aspaldi elkar ikusi gabeko pertsonen arteko topaketak, Even Mud taldearen emanaldia eta musika, nekatu arte. Gorabideko boluntario guztiei zuzendutako jaia izan arren, omenaldi txiki bat egin zitzaien beteranoei: Conchi Basabe, Cristian Puita, Naiara Marín, Itziar Castro, Valentín Macho, Mª Luz Cabrero eta Eneritz Arcosek aipamen berezi bat jaso zuten, beren ibilbideagatik.



# Hirugarren Sektore Sozialaren Eguneko protagonistak

Sareen Sareak elkarteetako erabiltzaileak hartu nahi izan ditu ardatz Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren egunean. Pertsona horiek beren bizimoduaren gaineko kontrola izatearen garrantzia nabarmendu nahi izan da. Pablo González, Sareen Sareko presidentearen hitzetan, *"Parte-hartzea funtsezkoa da hirugarren sektore sozialean. Gure izaeran txertatua dago. Eta garrantzia handia dauka gure egitekoaren ardatza osatzen duten pertsona horien kasuan"*. Iñigo Urkullu lehendakariak nabarmendu zuen hirugarren sektore sozialaren ekarpena *"ezinbestekoa dela gizartearen beharrizanei ondo erantzuteko. Eta ondo erantzuteaz ari garenean, erantzun pertsonalizatu, integral eta gertukoa emateaz ari gara. Gainera, ekimen publiko eta pribatuaren arteko lankidetza eta familien, komunitateen eta kolektiboen parte-hartzea bideratu behar dira"*.

Azkenean, aurtengo Sareen Saria Manuel Merinok jaso du, hirugarren sektorean egindako ibilbideagatik.

# Las personas usuarias centran el Día del Tercer Sector Social

Sareen Sarea puso el foco de la celebración del Día del Tercer Sector Social de Euskadi en las personas usuarias de las entidades que formamos esta red de redes, y en la importancia de que tengan el control de sus vidas. En palabras de Pablo González, presidente de Sareen Sarea, *"La participación es un valor fundamental del tercer sector social. Está en nuestro ADN. Y es del todo relevante en el caso de las personas que constituyen el eje de nuestra misión y están en el centro de nuestra intervención"*.

El lehendakari Iñigo Urkullu destacó que la contribución del tercer sector social *"resulta imprescindible para responder de manera más adecuada a las necesidades sociales. Más adecuada significa cercana, personalizada e integral. Y, también, colaboración entre la iniciativa pública y la privada, participación de las propias familias, colectivos o comunidades destinatarias"*.

Por último, se entregó el Premio Sareen Saria a Manuel Merino por su trayectoria en el tercer sector.

## LABURRAK BREVES

### Club Diario Bilbao, abierto en julio

Como es habitual, el Club Diario de Bilbao permanecerá abierto todo el mes de julio, de lunes a viernes, en horario de 17:30 a 21:00. Las personas usuarias mayores de 18 años que estén interesadas en hacer uso de este servicio, pueden apuntarse, durante el mes de junio, llamando a nuestro Servicio de Tiempo Libre, al teléfono 94 443 12 10.

### Bilbo Euneroko Kluba uztailean

Ohikoa denez, Bilboko Eguneko Kluba uztail osoan egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera, 17:30etik 21:00etara. Zerbitzu hori erabili nahi duten 18 urtetik gorako pertsonek izena eman dezakete ekainean, Astialdi Zerbitzura deituz, 94 443 12 10 telefonora.

### Empleo con apoyo de Lantegi Batuak

En los últimos tres años, 83 personas con discapacidad han conseguido un empleo ordinario en empresas de Bizkaia, gracias al Programa de Empleo con Apoyo de Lantegi Batuak. Además, 201 personas han progresado profesionalmente en el último año.

### Lantegi Batuak-en lagundutako enplegua

Azken hiru urteetan, desgaitasuna duten 83 pertsonak lortu dute enplegu arrunta Bizkaiko enpresetan, Lantegi Batuak-en Lagundutako Enplegu Programari esker. Gainera, 201 pertsonak lortu dute garapen profesionala azken urtean.

GORABIDE

JUNIO DE 2019 | Nº 281 Zk | 2019KO EKAINA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## ARGAZKIA LA FOTO

**Gure Barakaldo, Basauri, Güeñes eta Lanestosa egoitzetako eta Getxo eta Santurtziko etxebizitzetako berrogei pertsonak Arrigunagako hondartza garbitzeko ekimen batean parte hartu zuten, Euskadiko Hizkuntza Zentroen Elkarteak (Acie) antolatuta.**



**Cuarenta personas de nuestras residencias de Barakaldo, Basauri, Güeñes y Lanestosa y viviendas de Getxo y Santurtzi participaron en la limpieza de la playa de Arrigunaga organizada por la Asociación de Centros de Idiomas de Euskadi (Acie).**

# AGENDA ekaina junio

gorabide.com/agenda

### AUTOGESTOREAK

**Irakurketa errazan Erabiltzaileentzako Arreta Unitateko materialari buruz topaketa**
Martes 4, a las 18:00.
Boluntako Ekitaldi Aretoan (Zabalbide 1, Bilbo)

### AUTOGESTORAS/ES

**Encuentro sobre materiales de la Unidad de Atención a la Persona Usuaria, en lectura fácil**
Martes 4, a las 18:00.
Salón de Actos de Bolunta (Zabalbide 1, Bilbao)

### ELKARTEAK

**Busturialdea (Topaketa):** asteazkena 12, 18:30etan.
Kultur Etxea. Foru Plaza (Gernika).

**Deusto-San Ignacio (Batzordea):** asteartea 4, 19:00etan.
Solas Etxe Kluba. Luzarra, 24 (Deustu).

**Ermua (Batzordea):** astelehena 3 19:30etan.
Aldapa, 2 , etxabe A (Ermua).

**Mungialdea (Komisio):** asteartea 4, 20:00etan.
Atxurizubi, 12 (Mungia).

**Santurtzi (Komisio):** asteazkena 26, 19:00etan.
Sabino Arana, 20-22 (Santurtzi).

### AGRUPACIONES

**Busturialdea (Encuentro):** miércoles 12, a las 18:30.
Kultur Etxea. Foru Plaza (Gernika).

**Deusto-San Ignacio (Junta):** martes 4, a las 19:00.
Club Solas Etxe. Luzarra nº 24 (Deusto).

**Ermua (Junta):** lunes 3, a las 19:30.
Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Comisión):** martes 4, a las 20:00.
Atxurizubi nº 12 (Mungia).

**Santurtzi (Comisión):** miércoles 26, a las 19:00.
Sabino Arana nº 20-22 (Santurtzi).

### FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**Eskola-umeetako familiak:** osteguna 13, 18:00etan.

**Gazteetako familiak:** astelehena 24, 18:00etan.

**Helduetako familiak:** osteguna 27, 18:00etan.

**Adimen desgaitasuna arina duteneko familiak:**
Asteazkena 26, 18:00etan.

**Neba-arreba adingabeentzako sormen tailerra:**
Ostirala 28, 18:00etan.

Bilaketa guztiak: Poza Lizentziatua kalea, 14 - 2. (Bilbo).

### FORMACIÓN FAMILIAR

**Familias de escolares:** jueves 13, a las 18:00.

**Familias de jóvenes:** lunes 24, a las 18:00.

**Familias de personas adultas:** jueves 27, a las 18:00.

**Familias de personas con discapacidad intelectual ligera:** Miércoles 26, a las 18:00.

**Taller creativo para hermanas y hermanos menores:**
Viernes 28, a las 18:00.

Todas la reuniones: Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao).

D.L./L.G. BI-394-2014

Línea perforada. Cortar por aquí.

GORABIDE
ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

## CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

La Junta Directiva de Gorabide convoca **ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE SOCIAS Y SOCIOS**, el martes **18 de junio de 2019,** a las **18:30 horas**, en el espacio **Lantegia 2** ubicado en la **segunda planta** de **Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao** (Plaza Arriquibar nº 4 de Bilbao, con entradas adicionales por las calles Iparraguirre, Fernández del Campo y Alameda Rekalde), en segunda convocatoria, al ser previsible que no pueda celebrarse en la primera, que también queda convocada por este anuncio una hora antes.

### ORDEN DEL DÍA

1. **Lectura, a efectos informativos, del acta aprobada en la asamblea anterior.**
2. **Informe del presidente:**
   - 2.1. Análisis y aprobación, en su caso, del plan de actuación de la asociación y gestión de la Junta Directiva en el año 2018.
   - 2.2. Análisis y aprobación, en su caso, del estado financiero del año 2018.
3. **Aprobación del Plan de Actuación para el año 2019.**
   - 3.1. Exposición por parte del presidente.
   - 3.2. Presupuesto para el año 2019.
4. **Actualización de las cuotas para el año 2020.**
5. **Resumen, a título informativo, de actuación y gestión de:**
   - 5.1. Lantegi Batuak.
   - 5.2. Futubide (Fundación Tutelar Gorabide).
6. **Renovación de la Junta Directiva.**
7. **Ruegos y preguntas.**

Al finalizar la asamblea, habrá un espacio para atender las cuestiones que no hayan tenido cabida en el turno de preguntas, compartiendo una bebida.

**MUY IMPORTANTE:** Las personas que no sean **socias** de Gorabide no podrán acceder a la asamblea.

Lerro zulatua. Ebaki hemendik.

GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

## OHIKO BATZAR NAGUSIETARAKO DEIA

Gorabideko Zuzendaritza Batzordeak **BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO** deia egiten du. Batzarra **2019ko ekainaren 18an,** asteartea**, 18:30etan** izango da, **Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko bigarren solairuan** dagoen **Lantegia 2**an, (Plaza Arriquibar 4, Bilbon; Iparraguirre, Fernández del Campo eta Rekalde Zumarkaletik ere sar daiteke), bigarren deialdian. Lehenengo deia ordubete lehenagorako egiten da honen bidez, baina seguru asko batzarra ezin izango da lehenengo deialdian egin.

### GAI ZERRENDA

1. **Aurreko batzarrean onartutako akta irakurtzea, informatzeko.**

2. **Presidenteak berriak ematea:**
   2.1. Elkartearen 2018ko ekintza plana eta Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertzea eta onartzea.
   2.2. 2018ko finantza egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.

3. **2019 urterako Ekintza Plana onartzea.**
   3.1. Presidentearen azalpena.
   3.2. 2019rako aurrekontua.

4. **2020 urterako kuotak eguneratzea.**

5. **Honako hauen jardunbidearen eta kudeaketaren informazioa ematea:**
   5.1. Lantegi Batuak.
   5.2. Futubide (Gorabide Tutoretzarako Fundazioa).

6. **Zuzendaritza-Batzordearen berriztatzea.**

7. **Galderak eta eskaerak.**

Batzarra eta gero, galderen txandan leku izan ez duten galderez arduratzeko denbora izango da, edari bat partekatuz.

**OSO GARRANTZITSUA:** Gorabideko **bazkide** ez direnak ezin izango dira batzarrera sartu.